

# Bero-beroan

## Graffiti Lehiaketako irabazle Garikoitz Arregi

**TOPAGUNEAK** laugarrenez egin du Euskal Herriko Graffiti Lehiaketa. Garikoitz Arregi berriztarrak (Bizkaia) irabazi du lehenengo saria (1.500 euro), iazko irabazle berbera. *Kolorez busti* izeneko lana bakarrik egin zuen

Arregik eta, besteren artean, lana bakarka egitea baloratu du epaimahaiak. Bigarren saria (1.200 euro) Jabier Landa eta Javier Murillo uhartarrek (Nafarroa) irabazi dute *Artearen Iraultza* obrarekin. Hirugarren saria (900 euro) Eneko Azpiroz eta Arantxa Txoperena iruindarrentzat izan da, *Iruña-Gernika* graffitiarekin.



## Merkatari.net

**DONOSTIAKO** Euskararen Udal Patronatuak [www.merkatari.net](http://www.merkatari.net) webgunea jarri du abian. Hiriko merkataritza eta ostalaritzaren euskara beharrik asetzen lagundu nahi du tresna horrek. Hala, Euskararen Udal Patronatuak ematen dituen diru-laguntzen berri, testu laburrak itzuli, zuzendu edota zalantzak argitzeko zerbitzua, albiste bulletina, hiztegiak on-line erabiltzeko aukera eta euskara lan esparruko idatzietan erabiltzeko *Lanerako Idazkiak* argitalpena jaso ditu atari berriak. Bestalde, zerbitzuen berri emateko 5.000 esku orri banatu ditu hiriko sektoreko profesionalen artean. Bestetik, sektoreko langileentzako oinarrizko euskarazko ikastaroak antolatuko ditu irailetik aurrera.

Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Garikoitz Arregi irabazlea, Jabier Landa eta Javier Murillo bigarren saridunak, hirugarren sariduna Eneko Azpiroz eta parte hartzailetako bat azken argazkian. Argazkiak: Iñigo Azkona.

## Arto transgenikoa

Ipar Euskal Herrian arto transgenikoa ereindako 521 hektarea daude dagoeneko. Hau da, lursail horietan genetikoki eraldaturiko artoa hazten ari da. Hala jakin da Frantziako Nekazaritza Ministerioak GEO, Genetikoki Eraldaturiko Organismoen Laboreen Erregistro Nazionala argitara eman duenean. Zehazki lau kantonamendutan banaturiko 128 lur zati daude identifikatuta. Horietan eremurik handiena Bidaxuneko kantonamenduan dago, 480 hektarearekin. Urrundik jarraitzen diote Bastidako kantonamenduak (20,80 hektarea), Amikuzekoak (18,62) eta Hiriburukoak (1,80). 521 hektarea horiek, gerta daitekeen kutsaduragatik, arriskuan jartzen dituzte kalitatezko labelarekin lan egiten duten ekoizpenak. Eta, datozen asteetan ezer egiten ez bada, egoera itzulezina bihur daiteke. Euskal nekazari eta ekologistek, arto transgenikoaren hektarea

horiek kokatzen diren herrien eta ustiapenen inguruko zehaztapen gehiago eskatzeaz gain, moratoria bat galdegiteko mobilizazioak ere iragarri dituzte. Moratoria hori Alemania, Austria, Hungaria, Irlanda eta Espainian badago eta baita Italiako Akitaniako administrazio erregionalak "Pays Basque 2020" proiektuan garapen jasagarria lehenesteaz hitz egitea eta, era berean, transgenikoen ereitea onartzea. Iparaldean kalitatezko produktuen eta jatorrizko izendapenaren sarean lan egiten duten 3.000 pertsonaren lanpostua arriskuan dago. Beste behin ere Administrazioa hiritarrez eta nekazariez ahaztu da eta enpresa handien eta multinazionalen interes finantzarioak ezarri ditu aurretik. Moratoria, orain!

Juan Mari Arregi

## BAHEA

**Edorta Jimenezek Nabarran esanak:** "Halaxe joan dira bertan sorturiko dendak, eurak ere euskarazko liburuak Euskal gaia / Tema vasco atalera baztertuz. Eraginkortasunaren izelean. FNAC eta MCCkoetan zelan, halaxe besteetako batzuetan".

**Juan Luis Zabalak Nabarran esanak:** "Euskara soziologikoki eta politikoki inguruko erdaren azpian dago eta hori hala den bitartean irakurleen bila egiten ari den ahalegin oro mugatua izango da ezinbestean. Euskarazko liburu guztiak –alferrik izango dira interesgarrienak, bikainenak, aberatsenak– zama erantsia baitute Euskal Herriko irakurle gehienentzat".

**Martxel Aizpuruak Berrian esanak:** "Bertako merkataruari begira lan egiten dutenak euskarazko markak ipintzen saiatzen dira, baina euskaraz marka besterik ez da egoten normalean; legeak agintzen dituen beste ezaugarriak erdara hutsean datoz gehienetan. Batez ere bezeroek altza behar dute ahotsa euskaraz egotea nahiko luketela adieraziz".

## Imaz versus Ibarretxe, hori saldu du artikuluak

**JOSU JON IMAZEN** artikuluak bazterrak nahasi ditu, euskal gizarteko eremu politikoan oro har, baina nagusiki Jaurlaritza sostengatzen duen hirukoan eta, baita bere alderdian ere. Ez da samurra ulertzea zergatik jaurti dituen orain hausnarretok, baina testuingurua bederen oso esanguratsua da. Batetik, ETak su-etenari amaiera eman diotenean eta bestetik, EAJren

barne mailan zuzendaritza hautatzeko prozesuaren atarian. Une oso garrantzitsuan, alderdiak bestelako politika markatzeko saioa dirudi. Imazen iritzi artikuluak, bestalde, hautsak harrotu ditu, baina ezin esan bere edukia erabat berria egin denik, tankerako adierazpenak behin eta berriro egin baititu, ahoz zein idatziz eta, jakina da bere alderdian diskurtso horrek baduela aldekorik eta aurkakorik.

Su-etenaren amaieraren testuingurua hartuta, harrigarriena da nola islatzen duen Ibarretxe lehendakariaren erreferendumarekiko aurkako jarrera; edo hori da bederen gizartearen aurrean islatzen dena. Orain etorriko dira Imazen eta alderdiko beste batzuen ñabardurak eta azalpenak, baina horrek nekez estaliko du lehenbiziko inpresio hori, Ibarretxe estu hartu nahi dela alegia.

Ibarretxe lehendakariari dagokionez, bere azken bi legegaldietako oinarria jartzeko da zalantzan kontsulta bera zalantzan jartzean. Ibarretxek eta Jaurlaritzaren Kontseilu Politikoak argi esan zuten iazko udan, su-etenak porrot egiten bazuen B plana gertu zutela eta berau zer zen erabat argitu ez bazuten ere, ahalezko ekimenaren



DANI BLANCO

ardatzean gehienek ikusi genuen Madrilek atzera botatako Ibarretxe plana eta kontsultaren itzala. Bake prozesuaren balizko porrotaren aurrean, ekimen politikoa berreskuratzeko lehendakaria eta hirukoaren borondatea argi gizarteratu zen.

Josu Jon Imazek ETari ekimen politikoa kentzeko argudioa ere aipatzen du, baina beste norabide batean, ETak kontsultaren aukera bere alde jarri dezakeelako. Argudio erabat kontrajarria da, ETak bere biolentziarekin ekimen politikoa har ez dezan, ETak egin dezakeen balizko erabilpenetik Jaurlaritzaren azken urteetako ardatz politikoa baldintzatzeko. Batzuetan, badirudi benetako argudio baina, norberaren helduleku eta argudio gisa hartzen dela erakunde armatua. Auziaren iltzea ez dela ETA entzun da behin eta berriz azken sei urteetan, EAEko herritarren erabaki eskubidea baizik. Artikulu honek hankaz gora jarri du iltze hori, oraingoaz bederen.

Ibarretxe buru Eusko Jaurlaritzak kontsulta egiteko bere hauteskundeetako agindua betetzeko asmoa azaldu duenean, EAK eta Ezker Batuak tinko sostengatu dute asmoa. EAJko zuzendaritza zegoen

isil samar. Bada, etorri da erantzuna. Orain ere, EAJren bi gobernu aliatuek laster erakutsi dute Imazen artikuluarekiko desadostasuna. Ibarretxeren berben zain dago orain EAEko gizartea.

**ARRE EDO SO.** Nafarroako Gobernuaren eraketak ez du tarterik jada eta aste honetan ezagutuko dugu azkenean PSNk NaBai eta Ezker Batua hartzen

dituen aliatu gisa Gobernu berria, edo berau UPNren esku uzten duen. Alternatiba UPNri gutxiengoan gobernatzea izango litzateke, baina nafar eskuindarrek nekez onartuko dute halakorik PSNko gutxieneko oinarri batzuk hitzartu barik. Zuloz betetako haitzulora argirik gabe sartzeko bezalakoa litzateke, lehenengoz ez bada bigarren edo hirugarrenean zuloa jauziko zaren jakitun. Eta UPNkoak ez dira horren inozoak. Hauteskunde berrien aukera ere hor legoke, baina denek baztertzen dute, oro har politikarien irudia biziki kaltetzeaz gain, bereziki PSN kaltetuko luke, gobernagarritasunaren giltza izanik, Gobernu berria eratzeko gaitasunik ez duela izan erakutsiko lukeelako.

**ARABAN** tarte gehiago dago, datorren asteko 26an egingo baita Batzar Nagusietako osoko bilkura. Baina tarte txikia, hala ere. Eta ezin asmatu Txarli Prieto sozialistak eto Xabier Agirre jeltzaleak hartuko duen aginte makila. PPK du giltza hemen, eta Nafarroan gertatzen denak badirudi baldintzatuko duela Arabakoa. Askok dago jokoan, Araban bai eta EAJren baitan ere bai.